

## **5. Gogamenak eta ni-a materialian**

Egunerokotasunean erabiltzen dugu psikologia (gure/besteen jokabidea deskribatu, ulertu eta interpretatu nahi dugunean). Psikologia xume honi esker besteekin harremantzen gara; eta gabeziak daudenean (autismoa) arazoak.

Psiko xume honetan entitate batzuk aipatzen dira: ni-a, besteak (zu, hura, gu), nire edo beste gogo-egoerak (mundu mentala (usteak, itxaropenak, nahiak, asmoak, beldurrak, minak eta batzutan pertsona)), gogoa/arima.

Mundu mentala zenbaitetan animali eta robotei ere egotzi

Gogo-egoerak eta mundu mentala aztertzen dugu gizakien (eta animali/roboten) jokabidea ulertzeko, azaltzeko eta iragartzeko. Ekintzak ez bezala, ez da zuzenean behagarria; psikologia, zientzia kognitiboak eta filok (*gogoaren filo* deritzon azpidiziplinak) aztertzen du (zehar kontzeptu bat delako)

-zer dira gogo-egoerak?

-nola lotuta daude nire jokabidearekin?

-nola ezkontzen dira mundu mental eta fisikoa?

### **5.1 Oinarrizko bereizketa. Gogo-egoera motak**

Mundu mentalean asimetria bat neure eta beste artean, hau da, kontzeptu mentalak ezberdin erabili kasu bakoitzean.

Geure burua aztertzeko instrospekzioa edo barne-azterketa, ezagutza zuzena, ez dauka bitartekoen premiarik, ezagutza pribatua, norberak bakarrik ezagutu ditzake bere gogo-egoerak.

Pentsalari batzuek ezagutza hau hutsezina dela diote

Beste pertsona baten gogo-egoera ezagutzeko haren jokabideak hartzen dira kontuan. Aurreko egoera lehen pertsonan aplikatzen zen, baina oraingoan hirugarren pertsona; eta beraz mina ez da berdindu ulertzen, diskurtso arteko asimetria bat sortzen da.

- Deskartesek muturrera eraman zuen instrospekzioa sistema filosofiko baten erdigunean jarri. Instrospekzio bidez puntu ziur batera, cogito-ra/ni-ra, iristen gara; eta bertatik hau inguratzen duen ezagutzaren eraikin osora iritsi gaitzake dena instrospekzioaz.

Beste muturrean:

- Wittgensteinek mundu mentala aztertzeko orduan ez dio instrospekzioari ia garrantzirik ematen, bere abiapuntua sozialagoa eta giza jokabideei estuago loturik doa, kanpoari begiratzean datza.

Mundu mentalaren beste ezaugarri bat gogo-egoeren intentzionaltasuna da, hau da, beragandik kanpo dauden zerbait egiten diote erreferentzia. Adb. "Parisera joan nahi dut", nahiak (gogo-egoerak) hiri bati egiten dio erreferentzia.

Nola da posible intentzionalitate hau?

Hizkuntza ere intentzionala dela dakigu, (Paris hitzak hiri bati egiten dio erreferentzia).Lockek hizkuntzaren intentzionaltasuna hitzek gogoaren (ideien)

bidez eskuratzen dutela zihoen. Baina nola eskuratzen du gogoak intentzionaltasuna? Locke-k dio ideiak introspektioz antzeman ditzakegula.

Zer dira gogo-egoerak?

1. Proposizio-jarrerak: hemen hiru osagai bereizten dira: gogo-egoeraren subjektua, gogo-egoera mota eta proposizioa. Adb. "Parisera joan nahi dut" egoeraren subjektua (ni), gogo-egoera (nahia) eta proposizioa (Parisera joatea). Mota honetako egoerak dira jakiteak, asmoak, susmoak, desioak...
2. Sentsazioak (qualia): *Egoera-fenomenikoak*. Sentsazioak introspektioz eta lehenengo pertsonan ezagutzen ditugu. Gogo-egoerak badira ere hauetariko batzuk (hotza) gorputz sentsazioak dira; eta batzuk zentzumenei lotuta daude (gauza gorri bat ikusi dudanaren sentsazioa dut).

Gogo-egoera bat izan daiteke sentsazioa eta proposizio-jarrera bat aldi berean, Jon datorrela hautematen badut esaterako.

3. Emozioak: poza, tristura, beldurra... Zenbaitetan emozioak sentsazio gisa ulertzen dira----- 97.orr... Poza, tristura, beldurra... zenbaitetan emozioak sentsazio gisa ulertzen dira, emozioak, sentsazioak bezala, indar handiagoz edo txikiagoz sentitzen dira. Emozioak eta sentimenduak... emozioak sentsazioetatik gertuago daude, gorputz egoeraren aldaketa mota bat dira. Sentimenduak, konplexuagoak, proposizio-jarreraren ezaugarriak dituzte.

## 5.2 Gorputz-gogoen auzia antzinako filosofian

Grezia klasikoan gure mundu mentala ematen zen lekuan, arima, era desberdinetan ulertzen da.

### 1. Ikuspuntu dualista-mistikoa

Platonen Fedon elkarrizketan ikuspuntu honen adibide garbiak daude. Bere deskribapenean arima eta gorputza substantzia independenteak izateaz gain, hau da, dualismoa aldarrikatzeaz gain; gorputzak eta arimak konnotazio ezberdinak eskuratzen dituzte. Gorputzaren gain negatiboak jausten dira, hilkorra, ulertezina, multiformea eta desegingarria. Gainera arimari traba egiten dio, arimaren zoritxarrekoa da, sentimendu "negatiboen" (maitasun, desio, beldurra) iturria da gorputza, gorputza arimaren haitzuloa da. Heriotzean arima gorputzetik aldentzen da, arimak traba guztiak (gorputza eta bere ezaugarriak) uxatzen ditu eta hortaz begi onez ikusi behar dela dio. Arimari aldiz alderdi "positiboak lotzen dizkio", jainkozkoa, hilezkorra, ulergarria, behin-betikoa, eternoa eta deseginezina.

Platonen teoriak dio heriotzaren ostean datorrela benetako justizia, eta hau posible izan dadin gure atalik garrantzitsuenak bizirik iraun behar duela; gorputza irauten ez duela argi dagoenez gero, arimak irauten duela ondorioztatzen du. Argudio honetan premisa etiko-moral batetik (benetako justiziaren teoriatik), tesi ontologiko batera (muturreko dualismoa kasu honetan) iristen da.

Dualismo mistikoaren beste aldaera batzuen argudioa bestelakoa da, premisa etiko-moraletik abiatu ordez, hilezkorra izateko dugun nahietik (hau ere eztabaidagarria da) abiatzen dira tesi ontologikoa, dualismoa justifikatzeko.

Garaziren eskema:

## 5.2. GORPUTZ-GOGOEN AUZIA ANTZINAKO FILOSOFIAN

Mundu mentala ere zientziaren aztergai. Batzuek mundu mentala/fisikoa banatzen dituzte, eta beste batzuek ez → ezinbestekoa da mundu mentalaren inguruan hausnartzea.

Historian zehar honi era askotan deitu zaio: gogoa, arima, espiritua, psyche... Hasieran, adimenari ematen zitzaion garrantzia sentimendu eta emozioen gainetik, gaur egun honi ere garrantzia egozten zaio. Dena dela, Grezia Klasikoak era oso ezberdinetan ulertu arima:

### 1. Ikuspuntu dualista-mistikoa

Platonentzat → arima/gorputza independenteak, horregatik dualismoa aldarrikatu.

- Arima (hilezkor, ulergarria...) / gorputza (hilkorra, ulertezina...) guztiz kontrakoak
- Gorputzak konnotazio negatiboak, arimaren oztopo delako. Horregatik, heriotzak arima/gorputza banatzea esan du, arima askatzea.
- Munduan errugabeak errudun bezala ager daitezke, eta alderantziz. Horregatik, hil ostean benetako justizia dator. Horretarako iraun behar du arimak (premiatzko substantzia). Premisa etiko-moral honek tesi ontologiko batera → dualismoa

### 2. Hiruko arima (HA)

Ikuspuntu dualistatik banatuz, naturarekin bateragarri izaten saiatzen da.

Platonen *Fedro* elkarrizketan aurkezten da: [Zaldi hegoduna (arima)+ gurdizaina: osotasuna]

Bi zaldi: zuria=ona (B)      beltza=txarra (G)      Gurdizaina: zati adimentsua (B)

- Arima, adimena baino gehiago. Harremanetan: adimena + emozioak + sentimenduak
- Gizakiarengan nahi ezberdinak egon daitezke, talka ere egin dezaketenak
- AIMren arrastoak badaude, baina HAK ikuspegi naturalistagoa du eta hobeto uztartzen da naturaz dakigunarekin
- *Timeo* elkarrizketan alderdi bakoitzari gorputz atal bat: bihotza, gibela, burmuina

Aristoteles ere HA barruan → bizidun guztiek dute arima, gizakien kasuan hiru alderdi:

Elikatzeko gaitasuna=bizidunek      Hautematea=animaliena      Pentsatzea=gizakiak

(landareek beraz, ez dute hautematen → intuizio zuzen horrek izaera naturala eman)

- Arima ≠ gorputza → baina ez dira bi substantzia ezberdin. Arima gorputzaren forma da eta gorputzak arima osatzen du= biek osatu bizidun mota hau
- Adib: materiala eta etxea ez dira berdina. Materialak etxea osatu, formak antolatu
- Arima natural bihurtu. Horregatik bizidun eta arimadun izatea gertuko kontzeptuak
- Ez dualista → [gorputza eta arima osagarriak ezin dira bestea gabe bizi]
- Ez monista → [arima ez da materiazko mundukoa, antolatzeko era da]
- Mundu mentala mundu fisikotik sortu arren ez da horretara erreduzitzen

### 3. Materialismoa / monismoa

Heraklito: arima materiazkoa      Demokrito eta Leuzipo: arimaren osagaiak atomoak

Epikuro → materiazkoa ez dene zerk ezin du eragin ezer materialian, beraz arima materialian eragiteko gai denez materiazkoa izan behar du. Horregatik, arima atomo sorta bat da.

Lukrezio → *Gauzen izaeraz* testuan banaketa hau egin: gogoa [nahimena eta hautua, alde arrazionalari lotuta] / arima [bizitasuna, alde irrazionalari lotuta]

- Gogoak arimaren agintea du → baina biak dira materiazkoak, atomo sortak
- Arima/gogoa osatzen duten atomoak bereziak (arinagoak), mundu mentalean oso azkar transmititzen delako
- Heriotza → atomo arin horiek alde egitea. Beraz, ez da galera material handia.

- Ikuspegi D-M tesi bat erasotu → arima ez da hilezkorra, gorputzarekin batera jaio eta hiltzen da

Muturreko materialismoa → mundu mentalari/gogoari buruzko auzia baztertu behar da existitzen ez delako. Ezjakintasunaren ondorio da horri buruz hitz egitea.

#### **4. Bestelakoak: panpsikismoa**

Materialisten dena materia dela dioten bezala → dena mentala da.

### 5.3 Gorputz-gogoen auzia filosofia modernoan eta egungo filon

#### 1. -Dualismo modernoa

Descartes teoriaren arabera, egunero ikusten ditugun ustezko substantzia bananduak (aulkia) ez dira benetako substantziak, materiazko substantzia bakarraren aldakuntza (edo Descartesek moduak deitzen dienak) baizik. Hortaz, gorputzak materiazko subs bakarraren moduak diren mekanismoak dira. Materiaren inguruko ezagutza hizkuntza matematiko batean adieraz daiteke, bere jokabidea lege gutxi batzuek arautzen baitute; materiaren ikuspuntu mekanizista. Gorputza ez bezala, gizakia ezin da murriztu materiazko substantzia modu batera. Gizakion jokabidea oso malgua da, eta hau ezin da mekanikoki azaldu. Arimak ematen dio gizakiari materiak ematen ez diona. Hemen sortzen da dualismoa, gogoa eta gorputza bi subs independente dira eta bakoitza bestea gabe izan daitezke.

Dualismoa errealitatean bi subs daudela dioten tesi metafisikoa da. Niaren ezaugarri nagusia pentsamendua da, eta gorputzaren ezaugarri nagusia hedadura da.

Esperientziak ordea erakusten du bien arteko harremana oso estua , eta bata bestean eragiten duela. Nola azaldu hau (interakzio/eragin-trukearen auzia)?? :

-Paralelismoa (Gottfried Wilhem Leibnz): Jainkoak denboraren hasieran independenteki sortu zituen mundu mental eta materiala, eta baita hasieratik koordinatu zituen. Aldez aurretiko harmonia batez azaltzen du teoria honek auzia, beraz interakzioa ez da benetako itxurazkoa baizik.

-Okasionalismoa (Nicolas Malebranche): Hasiera batean jainkoak bi munduak independenteki, baina oraingoan Jainkoa etengabe ari da bi munduen arteko koordinazioa egiten, bera da bi munduen arteko bitartekari kausal bakarra.

-Epifenomenismoa (Thomas Henry Huxley): dualismoari eutsi nahi dio baina mundu mentalaren eta materialaren arteko eragintrukea azaltzen du jainkorik aipatu gabe. 3 tesi lotu nahi ditu:

- Mundu mentala eta materiala egon badaude eta independenteak dira (dualismoa)
- Itxuraz hartu emana dago mundu mentala eta materialaren artean (interakzioa)

- Egitate materialak bakarrik dira egitate materialen kausak (kausazko itxuraren tesia)

1.go tesia aldatzen du: mundu materialak mundu mentala kausatzen du, mundu mentalak ez du kausatzeko ahalmenik.

Bukatzeko neodualista kontsidera daitezkeen bi teoria; Thomas Nagelek dualismoaren aldeko esperimendu bat eginez hau ondorioztatzen du: Sagusarrei buruzko guztia jakinda ere (bere biologiaz dena jakinda ere), ez dugu jakingo sagusarra nola senitzen den, sententzioek baliabide materialekin harrapaezinak diren alderdi subjektibo erreduktezinak dituzte.

Frank Jacksonen esperimendua: Giza-ikusmenaren neurofisiologian aditua den eta ikusmenari buruz jakin daitezkeen guztia dakien pertsona bat jaiotzetik gela txuri beltz batean bizi da. Egun batean tomate gorri bat ikusten du, kolorearen esperientzia berri bat du. Berriro ere esperientzia subjektiboari atxikitzen zaizkion gogo-egoerak ezin dira ezagutu materiaren gaineko ezagutzatik.

## 2. - Identitate-teoria, materialismoaren oinordekoa

Egungo eztabaidetan Materialismo klasikoak identitate-teoriaren forma hartu du. Pentsalari materialista hauek (materialistek=gogo-egoerak egoera material/fisikoak direla) uste dute mundu mentala zientzia aurkikuntzen bidez materia izatera mugatzen dela frogatuko dela. Errealitatean, metafisikan, dena materiala.

Teoria honen arazoak: 1. Intentzionalitatea. Gogo-egoerek izate intentzionala dute. Nola eskuratu materiatik soilik. 2. esaterako, mina ezin da beti garun egoera batetik azaltzen.

## 3. - Konduktismo logikoa

Ryleren arabera dualistek akats bat egiten dute giza jokabideez aparte "beste zerbaiten" bila ibiltzean. Gogo entitate propio bati aplikatzea ez da egokia, jokabideez hitz egiteko modua bat delako berez. Ikuskera hau=konduktismo logikoa. Teoria honek babesten duena da mundu-mentala ez dela barnera begira aztertu behar kanpora begira baizik. Wittgensteinek bat, jokabide eta jokabide-liguistikoei erreparatu behar zaie.

Konduktismoa bideraezina bada ere auzi interesgarriak, Alan Turing matematikariak makinak pentsatzeko gai izan daitezkeela esan; baina Searlek ondorioztatu bere testak ez duela hori frogatzen, joko sintaktiko huts bat dela.

## 4.- Funtzionalismoa

Gogo-egoerak funtzionalki ezaugarritu daitezke, funtzionalisten helburua ez da gogo-egoeren gaineko kontzeptuak eliminatzea (kondukistek bai), gogo-egoerak zehaztean beren funtzioa eta gogo-egoeren arteko harremanak zehaztu behar dira. Funtzionalistek gogo-egoera bakoitza, funtzio gisa, era askotara gorpuztu daitezkeela onartzen dute. Materialisten aurka, gogo eta gorpuzta ez dira berbera; dualismoaren aurka, gogo eta gorpuzta ez dira independenteak. Hiruko arimaren oinordeko, aurreko bien artean.

Gogo egoera guztiak funtzio gisa definitu daitezke?? teoria honen hutsunea, mundu mentalaren ikuspuntu funtzionalista murriztegia izan daiteke.

#### 5.4 Ni-arekin bueltaka

Zer adiarezten dugu Ni-az ari garenean?

Descartesez uste du introspekzioz ni-a, Pentsatzen are den hori, atzeman daitekeela, eta beste ezer baino zihurtasun handiagoz ezagutu daitekeela. Bestalde, ni-aren esparrua sententzioen erresuma da. Descartesek ni-ak ez du harrapatzen ordea bere denborazkoa den ezta soziala den alderdia.

Ni-a denboran koazen duguneko egoerari Locke erantzuna ematen dio: ni-a pertsona gisa ulertzen du. Kontzientzia jarraitua da pertsona, oroimenak lotura lana egiten du, jarraitasuna ematen dio ni-ari. Nia ibilbidea duen zera da eta horretarako guneen arteko lotura egiten duena, oroimena. Locke gizakia (kategoria biologikoa) eta pertsona (kategoria psikologikoa) bereizten ditu, eta guk esaterako, erantzunkizunaz edo bizirauteaz hitz egiten dugunean pertsonaz ari gara. Ni-aren zentroan oroimena eta beraz, erantzunkizuna jartzen ditu.

Alderdi soziala? (nia bakardadean irudikatzen dute)

Batzuek (Paul Ricoeur) narrazioaren teoria proposatu, pertsonak bizitza lehenengo pertsonan idatzitako narrazio baten moduan esperimendatzen dutela aldarrikatzen dute. Narrazioa besteek norberaz egiten dituzten narrazioekin harremanetan eraikitzen da.

Beharbada niak ertz ezberdinak ditu eta teoria hauek osagarriak izan daitezke; edo baliteke niak ez izatea batasun metafisikorik eta batasun bakarra nominala eta kontzeptuala da, hizkuntza eta kontzeptuen emailan bakarrik.

#### 5.5 Libreak al gara?

*Psikologia xumea*: nire askatasuna da nagusi, ni askea, ekintzaren erantzulea. *Kontakizun zientifikoa*: ez dago askatasunik, egoera bakoitzari beste batek jarraitzen dio lege batzuek poderioz...*Aukeramenaren auzia (libre albedrio)*

- Zerbait ondo egiten dugunean nia azpimarratzen dugu; txarto egiten dugunean zerbait, ez zaigu gustatzen nia azpimarratzea, inguruabarrak behartu gaituela diogu...

-Askatasunaren baldintzak: 1. nik neuk daukat nire ekintzaren gaineko kontrola. 2. aukera bat baino gehiago eukitzea. Bestela ez dago aukeramen askerik.

#### 5.6 Animaliak, gizakiak eta robotak

Gizakia mundu mentalaren erreferentzia. Zenbateraino dute animaliek eta makina sofistikatuak gure antza? Animalien kasuan ni-az mintza gaitzke? Erantzunkizuna dute?

Gizakion artean asimetriak daude (arrazak/generoa) aurre egin behar zaienak berdintasun bat lortzeko, eta denok eskubide-betebehar-erantzunkizun-zigor-sari etabarren sarearen inguruan eratzen den espazio moralaren parte gara. Espazio horretako subjektu moralak gara.

Animaliak ez, beren eskubideez aritzean beste zentzu batean ari gara, beren auzia ez da subjektu moralak diren edo ez, baizik eta ea kontsiderazio moralak behar duten edo ez.

Animalien mundu mentalaren inguruan, Mark D. Hauserrek ikerketa batzuen ondoren ondorioztatu du:

- animaliek ez dutela joko moralerako behar den kontzientzia mailarik.
- Ez dute enpatiarik,
- sentimenduak bai,
- oso zurrinak dira beren grinak kptrolatzeko.
- Ez dago garbi animaliek besteei nahiak ea usteak atxikitzen dizkietenik.
- Ez dute beren ekintzen bidez besteengan eragina izan dezaketela ohartzeko gaitasunik.
- Betebehar eta aurduraren zentzurik ez dute
- Subjektu morala izateko ekintzei lotzen zaizkien emozio eta arauak ez dituzte ulertzen

Eztabaida lehen aipatutako sarean sartzeko baldintzetan dago, baldintza hauek mundu mentalari lotuta daude. Eztabaida kontsiderazio moralari zuzenduta eta ez da nahastu behar arraza eta genero eztabaidekin.

Mkinen kasuan izan dira gizakien mundu mentala izatera iritsi daitezkeela diotenak, baina enpatiaren test batean beti kale egiten dute eta honek saretik at uzten ditu.

## **6. BALIOAK ETA EGITATEAK**

Baieztapen batzuk egitateei buruzkoak izan daitezke (“bi pertsona torturatu dituzte”).

Edo balioa adierazten dituztenak (“tortura onartezina da”) → balioak atxikitzean eskala batean kokatzen ditugu. Horrelako ebaluaketa bat egiteak adostasun edo desadostasunak sor ditzake + batzutan zaila da jakitea errealitatea deskribatzen edo balioztatzen ari garen.

### **6.1. EGITATEEN ETA BALIOEN ARTEKO HARTU-EMANARI BURUZ: WITTGENSTEIN, HUME, MOORE ETA PLATON**

Wittgenstein eta Humeek egitate eta balioen arteko dualismoa planteatzen dute. Batzuen ustez, balioen eremu hori erlijioaren esku dago, erlijioa eta zientzia osagarri eginez. Besteen ustez, gizakiak finkatutakoak dira.

- **Wittgenstein** → Egitateetatik (baliorik ez), ezin dira balioak ondorioztatu. Balio eta egitateen eremuen artean harresi handi bat dagoelako; egitateak zientziak aztertzen ditu, eta bestea balioak dira.
- **Hume** → *Den* batetik (gertakari) ezin da logikoki *izan behar duenik* (balio) ondorioztatu. Hori egitea iruzur logiko bat litzateke.

Dualismoaren kontra, pentsalari asko → horretarako, balioak egitateen bidez definitzen saiatu dira (balioak=egitateak) , horrela balioen epistemologia eta metafisika ezagutzeko. Balioen erredukzionismo honen bidez, balioak naturalizatzen direla esaten da.

- **George Edward Moore** → Balioan naturalizazioa okerra dela dio, iruzur logiko bat duelako atzetik. Ongia ezin da definitu egitateen bidez.

Zergatik iruzur logikoa? Edo falazia naturalista? Horrela azaltzen du:

→ (def 1) *asteazkena asteartearen hurrengo eguna da*

Kasu honetan oker dagoela esango genioke. Hitza gaizki ulertu duela, gaizki erabiltzen duelako, edo hizkuntza gaizki ezagutzen duelako. Esan duenak beraz, ez du zentzurik.

→ (def2) *ekintza hau moralki ona da jendearen atsegina areagotzen duelako*

Definizio naturalista → ongia eta egitateen arteko mugarik ez. Morala zer den ekintzen bidez aztertuko litzateke. Moorentzat definizio tranpati eta ez zuzenak dira → galdetuko bagenu “X ona da atsegina sortzen duelako?” erantzun posible ezberdinak daude, ez da 1.def bezala zentzuzkoa dela edo ez, galdera zein erantzunak zentzuzkoak dira.

→ Irtenbidea → Egitateak ezagutzeko bidea ohikoa da (zentzumenak, arrazioa..); baina balioak ezagutzeko berezia, intuizio berezien bidez egiten da.

- **Platon** → Eutifron elkarrizketan, Mooren argudioaren aitzindaria planteatu.

→ (def) X ekintza ona da Jainkoaren gustukoa bada; [Ongia=Jainkoaren gustukoa] Elkarrizketan planteatzen da definizioa zuzena izango balitz, galderek ez luketela zentzurik izango. Zerbait ondo egotea ezin da definitu egitateen bidez.

Argi dago ikuspegi ezberdin asko daudela egitate/balio harramenaren inguruan, hauek ezagutzeko eran...

## 6.2. BALIOEN ERRESUMAN BARRENA. OBJETIBOA ETA SUBJETIBOA.

Balio eta egitateak nahasturik agertzen dira, batzutan ez dira horren errez desberdintzen.

Balioen barruan ere, mota askotako balioak desberdin daitezke.

- Gustu baieztapenetan → (adib. izozkiei buruzko eztabaida batean) Besteen balio-baieztapenak arazorik gabe onar daitezke. Berez ez dira ez egia ez gezurra, esaten duenaren arabera izango da.

- Balio-baieztapen moral eta etikoetan → (adib. ablazioa ondo dago) Desadostasunak egon daitezke, eta bestea oker dagoelakoan desadostasuna desegin nahi dugu, ezagutzaz eta argudio bidez.

- Bi mutur hauen artean bestelako asko → Artearen inguruko baieztapenetan, ez da soilik gustu kontua, ezagutza eta ulermenak bere papera du. Hala ere, desadostasun horiek ez dira zertan desegin.

→ Etikan eta estetikan justifikaziorako espazioa sortu → ezagutza + ulermena baliatuz

Balio eta egitateen inguruko baieztapenak daude, baina hauen banaketa baino garrantzitsuagoa da hauek nola jorratzen diren → alde batean gustu-baieztapen subjektiboak daude eta besteak baieztapen objektiboak (egitateen ingurukoak). Objektiboetan egia, faltsua, zuzentzeak... badute lekua, baina subjektiboek kasuan zailagoa da (batzuetan uste dena baino objektiboak izan arren adib. estetika eta etika).

Gainera, egitate eta balioen artean badaude hartuemanak → [adib. baieztapen etikoak alda daitezke egitateen ezagutzarekin] Beraz, ez dira guztiz independenteak, Wittgensteinek planteatu bezala.

## 6.3. ERLATIBISMOAREN AUZIA. ERLATIBISMOA ETA PLURALISMOA

Gizakiak eta kulturak oso ezberdinak izan dira historian zehar → desberdintasun hori ez da errespetatu, honen ordez zapalkuntza eta inposizioa baliatu dira. Honen aurrean:

- Erlatibismoa → XV.-XVI.mendeetan kultura berriak ezagutzean, aniztasun hori egon behar ez zela uste zuten, mendebalduko kultura inposatu behar zela. Horrela erlatibismoa tolerantzia eta desberdintasunaren defendatzaile eta errespetatzaile



bezala agertu zen (aitzindariak Grezia Klasikoan). Erlatibismoaren funtsa: Xren (iritzia, kultura...) arabera emaitza bat edo bestea.

- Absolutismoa → Aniztasuna badago, baina ez luke egon behar. Aniztasunaren aurrean bide bakarra egon beharko litzateke (etikan, estetikan...)

→ Absolutismoaren aurka esan daiteke aniztasuna badagoela eta egon behar duela, baina erlatibismoaren aurka desadostasun guztiak ez daudela maila berean.

Auzi honetan, mutur batean egitate-baieztapenak daude, desadostasunak ezabatzea litekena dena; bestean, gustu-baieztapenak, eta desadostasun horiek ezabatzea ezinezkoa da. Bi muturren artean baieztapen asko daude.

Desadostasunak desegitea zaila denean erlatibismoa sartzen da (nire/zure/bere arabera...). Gustu auzietan erlatibismoa zentzuzkoa den arren, egitate eta auzi moraletan ez, esaterako auzi moralak oinarrian uste okerrak egon daitezkeelako (berriz ere egitate-balio hartu-emanan agerian utziz) edo zuzenean moral uste okerra delako.

❖ Hume → Bere ustetan erlijio nagusien moralak sasi-moralak da, proposatzen dituzten bertuteak (bakardadea, penidentzia, baraua...) ez direlako eredu-garriak benetan. Etikaren helburua bizikidetzaren onena lortzea bada, bertute hauek ez dute betetzen, jainkoarekiko menpekotasunean oinarritzen baitira. Beraz, ez dira benetako moralak. Baina moralen aniztasuna onartzen du, batzuk kritikatzeko dituen arren → Pluralismoa

Pluralismoak aniztasuna onartzen du, baina aniztasun horretan limite batzuk ezartzen ditu. Erlatibismoak ordea ez du onartzen moral batzuk ez onartzea eta kritikatzeko. Erlatibismoan erori gabe garrantzitsuenak da arrazoiaren murgiltzea, eta horren arabera gauza batzuk moraliki onartzea eta besteak ez → Argi dago eztabaida badagoela, eta ezin da desadostasuna besterik gabe onartu, erlatibistek egiten duten bezala.

## 7. GAIA: POLITIKAZ

### SARRERA

- Politikan aztertzen da nola bideratu giza ekintza gizartearen onurarako.

-Aristoteles: politikaren helburu nagusia zorientasuna bilatzea da (gizartearen zorientasuna).

-Gai eta auzi garrantzitsuenak: *autoritate politikoa; zein da gobernu edo estatu formarik egokiena? ...*

### 7.1 EGOERA NATURALETIK AUTORITATE POLITIKORANTZ: GOBERNUAREN AUZIA

- Jendea gobernu-estatu baten autoritatepean bizi da; herritarren bere askatasuna mugatzen duten betebeharrak dituzte. Autoritatearen onarpena eztabaidagarria izan daiteke kasu batzuetan (Adb.: soldaduska egitera behartzen badu gobernuak...)

- David Hume: autoritate politikoa ezin da bortxakeria hutsean ez fideltasun hutsean oinarritu.

- Badago autoritate minimo bat konfiantza giroan gertatzen dena (familian adib.); autoritate minimoa berriz, guztiz menpeko egoera da. Non kokatu behar da autoritate politikoa?

Autoritatea  
minimizatzea

- **Anarkistak:** Autoritate politikoa minimoa izan beharko litzateke. Gizartea autoerregulatu egiten da, gobernu/autoritate politikoen beharrik gabe. Kropotkin: gizakiak talde txikietan banaturik, denek ezagutzen dute elkar, eta oinarrizko eusentimendu batzuek kontrolatzen

dutejendea. Baina... egungo munduaren ezaugarriek ez dute bat egiten anarkismoaren oinarriko ideiekin (populazioa, mugikortasuna, globalizazioa...).

- **Anarko liberalak:** R. Nozick. Uko egiten diote autoritate politikoari, dena pribatizatuz autoritate politikoa minimizatu nahi dute.

Autoritate  
maximoa

- **T. Hobbes** (Leviathan). Autoritate politikorik gabeko egoera irudikatu, *egoera natural*. Gizakia urrundu egiten da onura eta arrazionaltasun kolektiotik, norberaren onura bilatuz, besteenganako mesfindantzaren ondorioz. Bakoitzak bere interesei jarraitzen, gerra egoera sortuko da. Hau ekiditeko, autoritate politikoa beharrezkoa da, gizarte hitzarmenaren bitartez gizakia pasatu egoera naturaletik gobernu egoerara. Subiranoak autoritate politiko osoa kontrolatuko du, bizitzaren alderdi guztiak kontrolatzeko autoritatea dauka.

- David Hume. Gizakiak autoritate politikora jo du zirkustantziek horretara eraman dutelako. Konfiantzan oinarritzen den autoritatea ez da nahikoa, baina Hobbesen subiranoa ez da beharrezkoa...

## 7.2 ZEIN DA GOBERNU FORMARIK EGOKIENA?

- Gaur egun demokrazia onartu sistema egokiena bezala, politikoki zuzenena da... ezaugarriarik oinarrikoena: biztanleriaren zati handi batek esku hartzen duela politikan. Ordezkaritzako demokrazietan erabakiak biztanleriarengandik urrun daude...

-**Platonen aristokrazia. Platon demokraziaren aurka.** *Errepublika* obran autoritate politikoa pertsona gutxi batzuen esku gelditu; bigarren mailan laguntzaileak eta ejerzitoa; azkenik herri xumea. Berdintasun politikoak galbidera garamatza. Jakintza premiazkoa da gobernatzeko, jende guztiak ez dauka jakintasanaren trebetasuna.

Hezkuntza sistema elitista bat proposatu sistema iltzatzeko. *Hiruko arimaren teoria*, arima hiru alderdi ditu: adimena, alderdi suminokrra eta apetitiboa. Agintariei adimena dagokie. Ondo trebatutako agintariek badakite herriak zer nahi duen.

- **Hobbesen tirania.** Egoera naturaletik egoera zibilera pasatzerakoan, autoritate politikoa bermatzeko onena tirania da, subirano bakarraren sistema.

- **Rousseau: nahimen orokorra.** Politikagintzaren erdigunean: hezkuntza, jendea bere interes partikularretatik urruntzeko eta interes orokorrei garrantzia emateko. Demokrazia ezin parte hartzailegoa eta zuzenagoa aldarrikatzen du, baina legeen aplikazio eta kudeaketa gutxiengo bati dagokio (gubernua). Klaserik gabeko sistema, berdintasuna muturrera eraman (emakumezkoak ez dira herritarrak...).

*Nahimen orokorra:* taldearen nahimena, baina taldea banako bakar gisa ulertuta. Kritikak: norberaren askatasuna gutxiesten du. Pentsamendu komunitaristaren hazia: komunitatearen interesak norberarenean gaintetik, norberaren garapena komunitatean bakarrik gertatzen da. Hau pentsamendu liberalari kontrajartzen zaio: norbanakoaren askatasuna da balio nagusia... Nahimen orokorraren kide izateak norberaren askatasunaren galera ekartzen du; hala ere, merezi, zeozer galtzen dugu, baina asko irabazten dugu. Benetako askatasuna iritsiko da osotasunaren partetzat hartzen dugunean gure burua.

- **Demokrazia.** Hitzaren esanahia: herriaren eta herriarentzako boterea. Bi printzipiotan oinarritzen da:

- Berdintasuna. Inor ez dago inoren gaintetik. Bi pertsonen arteko autoritate erlazioa badago, justifikatuta egon behar da.
- Herriak dauka autoritatea.

Demokrazia zuzena eta ordezkatzailerik bereizten dira. Gaur egun zuzena ez da bideragarria... zergatik?

- Arazo praktikoak, egungo gizarteak dituen ezaugarriak direla eta.
- Jendearen prestakuntza... erabaki politiko bat hartzerako orduan 3 alderdi bereizte dira, erabaki behar denaren inguruko formazioa, jendearen lehentasuna zehaztea, eta printzipio orokorrak (printzipio moralak, irizpide kulturalak, historikoak...)
- Erabakien aplikazioa. Nola bermatu hartutako erabakiak toki guztietan betetzen direla.

Arazo hauen aurrean demokrazia ordezkatzailerik alde egin. Boto bidez herriak ordezkariak aukeratzen ditu, eta hauek egin eta betearazten dituzte legeak. Adib.: John Stuart Millek, zenbait arrisku ikusten ditu: ordezkariak izan dezaketen ustelkeriarako joera aipatzen du. Bozemaileek interes orokorrari begira bozkatu behar dute, hori ez dago bermatzerik. Kezka nagusia, demokrazia gehiengoaren tirania bihurtzea (honi aurre egiteko desobedientzia zibila proposatzen du).

### 7.3 ASKATASUNA

- **Liberalismoa.** Autoritate politikoaren esku hartzetik babestu nahi du norbanakoaren askatasunaren eremua.
- Askatasunean bi alderdi bereizten dira. **Kanpo askatasuna:** askatasuna eta aukera kopurua lotuta daude. (Adib.: zenbat eta musika mota gehiago entzuteko aukera eduki, orduan eta libreagoa naiz). Mugatu daiteke legeen bidez, aukera batzuk garestiegiak direlako... **Barne askatasuna:** askea naiz sentitzen dudanean ni neu izan naizela hautua egin duena, ekintzaren kontrola nigan

dagoenean. Mugatu daiteke, menpekotasun mota ezberdinen erruz, telebistak zabaltzen dituen ereduaren eraginez, erlijio, alderdi, talde... baten kide izateagatik.

- **Isaiah Berlin**ek askatasunaren bereizketa klasiko bat egin zuen: askatasun positiboa eta negatiboa.

- Askatasun negatiboa: gizabanako batek ez duenean inongo oztoporik aurkitzen nahi duena egiteko. Autoritate politikoek askatasun negatiboa mugatu nahi dute, kide guztiak babestu behar direla argudiatuz.

- Askatasun positiboa: gizabanakoa bide zuzenetik ibiltzea, bere bizitzari buruzko plan zuzen eta egoki bat edukitzea. Barne askatasunari lotuta. \*Rosseau, Marx: gizabanakoaren ibilbidea ikuspuntu sozial batetik ikusi behar da; askatasun positiboa autoerrealizazioari lotzen zaio, autoerrealizazioa testuinguru sozial batean soilik bermatu daiteke.

- **John Stuart Mill**: nik askatasunez nahi dudana egin dezaket, inork kalterik jasotzen ez baldin badu. Inork ez du (autoritate politikoak ere ez) askatasuna murrizteko justifikaziorik. Baina... zer da kalte egitea? Millen arabera, kalte egitea norbaiten interesa kaltetzea da, eta interesa kaltetzea eskubideetan oinarritzen den interesa kaltetzea da. Eskubideak: eskubide moralak dira (ez naturalak edo legeetan oinarritutakoak). Askatasuna bermatzea zoriontasunerako bidea da.

\*adierazpen askatasuna: onurak besterik ez ditu, berdin du adierazpen bat egiazkoa edo faltsua den, adierazia izateko aukera eman behar zaio. (faltsua bada, egiazko iritzia sendoagoa izango da piztuko de eztabaidaren ondorioz). Gizakiak hutseginkorrek gara, hutsezina dela uste duenak ateak ixten dizkio adierazpen askatasunari... 164. ORRIA.

## 7.4 JUSTIZIA

- Justizia, balio politikoa. Edozein instituzio edo pertsonak izan behar duen balioa. Autoritate politikoak justizia bermatu behar du.

- Justiziak berdintasunarekin dauka zerikusia. \*Justiniano: pertsona bakoitzari dagokiona emateko ahalegin konstante eta iraunkorra da justizia. Proporzionaltasuna (bakoitzari dagokiona) lehenesten da.

- John Stuart Mill: justizia pertsonen legeko eskubideen errespetu gisa; eskubide moralen errespetu gisa (legeak injustuak direnean, desobedinetziaren aukera); merituen ordain gisa; emandako hitza ez betetzea injustua da; justiziak inpraziala izan behar du; berdintasuna ezinbestekoa da justizian.

- Denok dauka justiziaren dieia intuitibo bat, oinarri bat. Filosofia politkoaren helburua, oinarri horretatik teoria koherente bat eraikitzea.

- **Jabegoa.** Munduan dauden ondasunak ez daude berdintasunez banatuta. \*Locke: hasierako jabetzea justifikatu. Norbera bere lanaren jabea da, lan horiobjektu batekin nahasten denean bere jabego izatera igarotzen da.

Jabegoaren auzia ondasunen mugimenduaren eta banaketaren auziaren baitan aztertzea. \*Merkatu libreko sistema kapitalistan...askatasuna oinarritzat hartu. ondasunen jabegoa gizabanakoen eta enpresen esku dago, sistema jabegoa babesten du; ondasuna etekina lortzeko ekoizten dira (premiak asetzeko baino); ondasunen banaketa borondatezko trukaketaren bidez egiten da (eskaintza-eskariaren legea); edonork ekoiztu/saldu dezake edozein produktu. Merkatu librearen aldekoek *meritukrazia* aldarrikatu: metiruen arabera banaketa. *Kritikak*: sistema esplotatzailea, desberdintasunak sortzen ditu, injustua da. Ondasun batzuk berdintasunean banatu behar dira, eta beste batzuk premien arabera.

\* Marx eta Engels. Sistema planifikatua. Herriaren izenean estatuak dauka ondasunen jabegoaren kontrola; ondasuna premiak asebetetzeko ekoizten dira (ez etekinak lortzeko); ondasunen banaketa planifikatuta dago; Autoritate politikoak erabakitzen du nork ekoizten duen ondasuna bat, eta kopurua.

- **John Rawls.** *Justiziaren teoria bat.* Gizarte hitzarmen hipotetiko bat planteatu, berdintasun egoera batean egiten dena, "ezjakintasun-estalki"pean daudenek hiru printzipio onartuko lituzkete:

1. Gizarteko kide bakoitari oinarrizko askatasunen multzo bat eman behar zaio, ahalik eta zabalena.

2. Berdintasunaren printzipioa, edozein gizarte kokapenera iristeko aukera-berdintasuna.

3. Desberdintasunaren printzipioa. Bigarren printzipioak ez dakar norbanakoen arteko desberdintasuna ondasunetan. Bina hirugarren printzipioaren arabera, desberdintasun horiek justifikatzen dira pobreenen hobe beharrez erabiltzen badira. Garrantzitsua da jendea ez dela aberasten pobreen egoera txartuz.

3. printzipioak... *meritukrazia* bazterrean uzten du. Pertsona batzuek merituak egiteko gaitasun gehiago daukatelako jaiotzez (justizia ezin da jaiotzezko ezberdintasunean oinarritu); zer den merituzkoa eta zer ez arbitrarioa izan daiteke.

\**kritikak*: Rawlsten sistemak askatasunaren aldean justizia eta berdintasuna lehenetsi. **David Miller**: hirugarren printzipioa aldatu behar da, trukean...1. populazio osoari minimo bat bermatu

behar zaio, bizitza duina eramateko beharrezkoa dena. 2. merituen printzipioa: ondasunei dagokienez aldeak egon daitezke, baina soilik merituen arabera.

## 7.5 FEMINISMOA ETA KULTUR ANIZTASUNA

Feminismoak eta kultur aniztasunak filosofia politikoko gaiak dimentsio berria eman diete...

- **Autoritate politikoa.** Ez bakarrik dimentsio publikoan, eremu pribatuan botere harremanak existitzen dira (adib.: gizon eta emakumeen artekoak). Harreman mota hauek politikagintzaren lehen lerroa eraman behar dira.

- **Askatasuna.** Emakumezkoen aukerak betidanik gutxiago eta kalitate baxuagoak izan dira. Kulturak inposatutako emakumearen irudiaren ondorioz, emakumearen barne askatasuna mugatzen da, aukera jakinak egitera bultzatzen ditu. Kultura gutxituen kasuan, badago askatasuna bermatzen duen berdintasun formala, baina ez da errealia, ez du gutxiengoaren izera errespetatzen.

- **Justizia.** Formalki emakume eta gizonen arteko berdintasuna dago, baina errealitatean injustizia era sofistikatuan txertatu da... Diskriminazio postiboaren auzia, batzuek uste dute merituek justiziaren baitan garrantzia euki behar dutela, feministak eta kultura gutxituen kideak ikuspegi horren aurka agertu dira, eta diskriminazio positiboa aldarrikatu dute.

## + SOBRE EL FEMINISMO DE JOHN STUART MILL Y HARRIET TAYLOR

## 8. GAIA: ARTEARI BURUZ

### SARRERA

- Arteak → giza ekintza berezi eta unibertsala. Galdera metafisikoa (zer da artea?) eta epistemologikoa (artelana da ala ez?) planteatzen dituena.

- Berezko balioa (balio artistikoa), bere baitan dago. Beste balio batzuk euki ditzake (adib.: erlijiosoa).

### 8.1. ZER DA ARTEA?

- **Tolstoik** (zer da artea?) planteatu zuen galdera obra batzuk artelan izatea ulertzen ez zuelako; horregatik galderari erantzuten saiatzen da. Zaila da artelana zer den eta zer ez zehaztea, eta gaur egun are zailagoa, gero eta zabalagoa eta aldakorragoa delako.

- **Eszeptikoek** → artea berez irekia da, beraz ezin da definitu (adib. Artelan berritzaileak ez daude definizioaren barruan). Beraz, galdera hauek ez dute zentzurik, baina horrela al da?

### I. Arteak eta intentsionalitatea

- **Platon** → artea imitazio/antzematzeko jarduerak da. Arriskutsua ere bada emozioekin lotuta dagoelako, eta manipulatzeko erreza da.

- **Aristoteles** → Imitazio gisa ulertu. Baina ez da arriskutsua, katarkikoa baizik, eta artearen presentziari hezkuntzan garrantzia eman zion.

- Baina artea ez da **imitazio** hutsa. Badago artea ez den imitazioa, eta imitazioa ez den artea (adib: arte abstraktua, kubismoa, surrealismoa...)
- Horregatik hobe da **irudikatze** kontzeptua erabiltzea, orokorragoa delako. Baina ezer irudikatzen ez duen musika eta margolanak daude, beraz ez da nahikoa.
- Imitazio edo irudikatzea izan ordez, zerbaiti erreferentzia egiten diona da, **intentsionala**. (adib: Duchampen pixatokia, artea berari buruzkoa da, eta ez bestek) Horrela artea interpretagarria ere dela esan daiteke. Eta honek asko zabaltzen du artea; baina ez-intentsionalak diren obrak badaude.

Platon eta Aristotelesaren teoriaren garapena da, baina hala ere motz geratzen da.

## **II. Arte atsegin iturri gisa. Arte eta esperientzia estetikoa**

- XVIII. mendean Batteauxek arte ederrek atsegina dakartela esan zuten. Baina artea ez diren gauza askok eragiten dute atsegina, horregatik **esperientzia estetikoa** deritza, pentsamendua eta ulermena eskatzen dutelarik.

- Estetika hitzaren atzetik → [nola eragiten du guregan artelan batek? nola hartzen dugu lan hori?] Beraz, artelanean guregan zerbait eragiten dute, esperientzia estetikoa.
- Baina lan askok ez dute esperientzia estetikorik eragiten (adib. Duchampen pixatokia).
- Tolstoik → Artearen definizio honi kritika, honek artea gustu kontua/subjetiboa bihurtzen baitu, eta arteak badu obehitutasun maila bat, ez da soilik gustu-kontua.

## **III. Tolstoiren ikuspegia. Arte adierazpen gisa**

- Erromantizismoaren eraginez → artistaren emozioak artearen erdigunean. Emozioak (barne mundua) komunikatzeko bidea da artelana sortzailea eta hartzailearen artean. Gainera arteak gizadia eta norbanakoaren onerako balio du.

Horregatik: 1. Esperientzia estetikoak ez du garrantzirik

2. Bere garaiko korrante artistiko berriak (Baudelaire, Verlaine, Mallarmen) begi txarrez ikusi, artearen mamia falta zaielako, denbora pasa hutsa da.

- **Ortega y Gasset** → bere analiarekin bat egin, baina artea jolas bihurtzea positiboa

- Tolstoiren ikerkerak ere hainbat arazo: sentimenduak transmiti ditzake artea ez den zerbaitek; eta sentimendu bat transmititzeak ez du esan nahi egileak sentimendu hori duenik edo ez ditu zertan sentimenduak transmititu.
- Irtenbidea: komunikazio hitza era zabalean erabiltzea. Baina Tolstoiren teoria osoaren aurka egingo luke honek, inplikaturiko lukeelako dena dela artea.

#### **IV. Artearen teoria instituzionala**

- Levinson eta Dickie teoria instituzionala defendatu → honen arabera arte-munduak (musoek, galeriek, produktoreek, kritikariek...) erabakitzen du ze giza ekoizpen den artea eta zer ez. Hala ere ez du zergatia azaltzen.
- Argi dago artearen definizioa emateak arazoak sortzen dituela, batzuk itxiegiak dira, besteak zabalegiak eta eta batzuek garai jakin bateko artelanen arabera proposatzen dute definizioa. Ondorioz, batzuek uste dute artea ezin dela definitu
- Dominic Lopes → artea definitzea alboratzea eta artelanak kategorietan kokatzea eraginkorragoa dela esan, garrantzitsua baita kritikatu eta balioztatzeko. Kategorizatzeak artelanak kokatzea dakar, baina ez arte hitza definitzea.

#### **8.4 ARTEA ETA MORALA**

- Argudiatzen da balio estetikoak bakarrik hartu behar direla kontuan (etikoak eta besteak ez...), artearen zentsura dakar balio etikoez hitz egiteak, *artearen autonomia* aldarrikatu. Baina...balio etikoez balio estetikoan eragin dezake? (adib.: matxismoa, arrazakeria..)
- **Platon.** Artearen autonomiaren aurka. Ikuspuntu politiko-moral batetik poesia ez da egokia, beraz zentsuraren alde dago.
- **Artearen autonomiaren** alde, artea da gainerako balioetatik libre utzi eta babestu behar den esparrua. **Autonomiaren aurka**, balio etiko politikoaren menpekoak izan behar du arteak.
- Defendatu daiteke balio etikoez garrantzia dutela, baina ez dute eragiten balio estetikoan. Edo defendatu daiteke balio etikoak eragin zuzena dutela gure judizio estetikoetan:
  - Noël Carroll.** Adibidea: txiste arrazistak... txiste ondo eraikita, baina etikoki gaitzesgarria da. Bi balioztatzen ditu, txiste gisa eta etikaren ikuspuntutik, elkarrengandik independenteak dira balioztatzeak, paraleloak dira, bata bestean eragin gabe.
  - Balio etikoa balio estetikoaren parte da... txistearen arbuiatzen bada balio etikoan oinarrituta

#### **8.5 FIKZIOA**

- Gure ulermen morala zabaltzen eta sendotzen laguntzeko. \*Martha Nussbaum: fikzioa etikarako ezinbestekoa...



- **Fikzioa faltsutasun gisa:** fikzioa faltsutasun mota bat da. Baina...fikzio batean esaldiak egiazkoak izan ahal dira. Faltsua den narrazio oro ez da fikziozkoa (adib.: narrazio historiko faltsu bat). Fikzioa ulertzeko giltzarria ea da faltsutasuna.

- **Fikzioa gabezia gisa.** Fikziozko narrazioari zerbaitek falta zaio ez-fikziozkoa izan dadin.\*G. Frege: hitzek eta esldiek bi osagai dituzte: zentzua eta erreferentzia. Fikzioan erreferentzia falta da, ez da erabiltzen hizkuntzaren ahal osoa. \*Searle: fikzioan hizkuntza erabiltzen dugunean hizketa-ekintza hrien itxurak egiten ditugu.

- **Fikzioa komunikazio-ekintza berezi gisa.** Komunikazio ekintza bat, fikzio-intentzioa daukana oinarrian (beste komunikazio ekintza batzuk: baieztapenak, galderak, aginduak...). Fikziozko esaldi bat esaten duenaren intentzioa entzulea *imajinatze ariketa* batea murgiltzea da. Imaginatze ariketan egia edo faltsutasuna ez dira kontuan hartzen. Emozio sentimenduak pizten ditu fikzioak, nola sortu ahal dizkigu sentimenduak, ez bada benetakoak?:

- Ilusioaren teoria. Momentu batez fikziozko pertsonaiak benetakoak direla uste dugu.

- Itxurak egitearen teoria: ukatzen da emozioak benetakoak direnik, ez dugu benetako emozio sentimendurik fikzioaren aurrean.

- Emozio-sentimenduak benetakoak dira baina mota berezi batekoak. Nahikoa da imajinatze hutsa, ukatzen du emozio-sentimenduak usteei edo egiari lotzen zazkienik.